

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko ekainaren 7a. IX. urtea. 2.363. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Euskal Herriko historian eta kulturaren sakonduko dute, Villabonan

'Euskal Herriko Kulturgunea' izenpean hitzaldiak, kantaldiak eta erakusketa bat prestatu dituzte bihartik igandera bitarte ◦4

## Dantzari txikien arteko harremana sustatzeko eguna, etzi, Ibarra

Dantzari Txiki eta Alurr Eguna ospatuko dute egun guztian zehar, seigarren aldiz ◦6

## Proposamen sozio-ekonomiko «irekia» aurkeztu dute

Alternatiba, Aralar, EA eta ezker abertzaleak ekarpenak jasotzen ari dira; burujabetza «ekonomiko eta soziala» aldarrikatu dute ◦3



LURRIZ

→ **Beste aukera bat objektuentzat.** Tolosako San Blas Garbigunean Berrerabilgunea ireki berri dute. Bertan jasotzen diren hainbat objekturi bigarren aukera eman nahi diete. Atzo egin zuten inaugurazioa eta bertan izan ziren Ainhoa Ugalde Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakaria eta Irurako alkatea, Juan Carlos Alduntzin Ingurumen diputatua eta Ibai Iriarte Tolosako alkatea. ◦2

## Adingabeen zentroko bizilagunek aurrerapausorik ez dela eman salatu dute

Zizurkilen, pasa den astean, auto istripu bat izan zen eta zaratak beldurtuta «sekulako sustoa» hartu zutela esan dute ◦4



Gipuzkoako baserriarren denda denentzat zabalik

Landare eta lore haziak, erremintak, plastikoa, botikak...

**Anoeta**  
- Errota Industrialdea -  
943 655 880  
9:00-13:30 eta 15:30-19:30  
Larunbat goizetan irekita



TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



Berrerabilguneko erakusleihoak bi zati izango ditu, objektu handiak eta txikiak bereizteko. I. URKIZU

## Objektuei bigarren aukera bat emango die Berrerabilgune berriak

Tolosaldeko Mankomunitateko 28 udalerrietako biztanleek erabili ahal izango dute zerbitzua

### I. Urkizu

Tolosaldeko San Blas Garbigunean, Berrerabilgunea ireki berri dute. Bertan, jasotzen dituzten hainbat objektu «bigarren aukera» eman nahi izan diete modu honetara, hiri-hondakinen prebentzioa bultzatzuz.

Garbigunera eramaten diren hondakinak hainbat motatakoak dira, eta batez ere, gaikako bilke-

taren bidez jasotzen ez direnak jotzen dira bertara; han, sailkatu eta hondakin motaren arabera birziklatu egiten dituzte.

Ireki berri duten Berrerabilgunean, ordea, Garbigunean jasotzen dituzten hainbat objektu, berrerabiltzera bideratuko dituzte, hondakinen prebentzioa sustatuz.

Horretarako, erakuslehoi moduko bat jarri dute. Bertan, esku-ragarri dauden objektuak ikusi ahal izango dira, bi taldetan sailkatuta. Kabina batean, altzariak, etxetresna elektriko handiak, bizikletak eta antzeko traste handiak izango dira ikusgai. Beste kabinan, berriz, objektu txikiak goia ikusi ahal izango dira: etxe-

tresna elektriko txikiak, jostailuak, etxeko apaingarriak, eta abar.

Erakuslehoi edo kabina haue-tan, norberak bere objektuak utzi ahal izango ditu, baina Tolosaldeko Mankomunitateak argi utzi nahi izan du, egoera onean dauden objektu eta tresnak bakarrik sartuko dituztela Berrerabilgunean.

Erakuslehoiko objektuak hartzeko, berriz, nolabaiteko baldintza batzuk jarri dituzte. Batetik, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten 28 udalerrietako herritarra izan beharko da, eta adin txikikoek heldu batek lagunduta bertaratu beharko dute. Era berean, Berrerabilgunetik har-

tzen diren gauzak norberak erabiltzeko izan beharko dute; inoiz ezingo dira irabazi asmoko jardueretara bideratu. Azkenik, nabarmentzekoa da, ezin izango dela Berrerabilguneko objektu-rik erreserbatu, eta iriste-hurren-kerat jarraituko dutela. Gainera, gehienez ere bi objektu hartzeko aukera izango da.

### Sortzaileen konpromiso bila

Tolosaldeko Mankomunitatearen ekimen honek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du, eta horren harira, Foru Aldundiko Ingurumen ahaliduna den Juan Carlos Alduntzin ere aurkezpen agerraldian izan zen, atzo goizean. «Europa markatzen

### ↓ Berrerabilgunea

#### ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera.

09:00-12:30/16:00-19:00

Larunbata.

09:00-13:30

Igandeak eta jaiegunak.

Itxita

Abuztua.

Astelehenetik larunbatera,

09:00etatik 13:30era

#### INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Webgunea.

<http://www.tolosaldea.org>

Bezeroentzako arreta.

943 67 62 16

San Blas Garbigunea.

689 41 13 49

ari den ingurumenaren zaintzan, urrats bat gehiago da hau, eta estrategia eraginkorragoa martxan jartzen ari gara pixkana», nabarmendu zuen Alduntzinek. Bide beretik, hondakinen kudeaketa hondakin sortzaileen konpromisoan oinarritu beharraz aritu zen Ingurumen ahaliduna: «Gipuzkoarrak gakoia dira, eta sortzaileak erantzule egin ondoren, kudeatu egin behar da hori». Horrela beraz, Tolosaldeko Mankomunitateko 28 herriak zoriondu zituen Alduntzinek, «pauso berri bat norabide egokian» emateagatik.

Ibai Iriarte Tolosaldeko alkatea, bere aldetik, «zerbitzu berri hau erantzukizunez» erabiltzeko deia egin zien herritarrei, eta «hondakin hobereana sortzen ez dena» dela nabarmendu zuen, berrerabiltzearen garrantzia azpimarratuz. Bide beretik, Irurako alkatea eta Mankomunitateko lehendakaria den Ainhoa Ugaldet, esker-erak eman nahi izan zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Berrerabilgunearen proiektua aurrera eramateko eskainitako laguntzagatik.

## Txinpartan izango dira Bisiguaren Festako otorduak

### I. Urkizu Tolosa

Txinparta elkarteko egoitzan bertan izango dira, aurten laugarrenez antolatuko duten Tolosa-

ko Bisiguaren Festako otorduak. Aurkezpen ekitaldian, bisiguak Orio Estilora prestatuko dituzten parrileroetako bi izan ziren, Joxe Migel Zendoia eta Luis Mari

Uranga; eurekin izan zen, era berean, Txinparta elkarteko Mikel Uribe lehendakaria.

Datorren ekainaren 15etik 17ra bitarte izango da Bisiguaren Festa, eta urteroko moduan, Orioko Katxiña, Jose Mari eta Xixario erretxegietako parrileroek prestatuko dituzte bisiguak.

Guztira, 200 lagunei emango dizkiete bazkari nahiz afariak, 40 euroko menuaren bidez: antxoak gatzetan, tomate entsalada hega-

luzearekin, zainzuriak, bisigua parrilan, *bixigoxo* azkenburua, eta ardoa, ura eta kafea eskainiko dituzte. Afariak, hilaren 15ean eta 16an izango dira, eta bazkariak, berriz, ekainaren 16an eta 17an. Txartelak agortu dira dagoeneko.

Egoera ekonomikoa medio, Txinparta elkarteak aurrekon-

tua murriztu behar izan du aurten, eta Tolosaldeko Udalak materiala utzi die; horregatik egingo dituzte otorduak elkartean.

Hala ere, parrilero oriotarrek lehengaiak «ezinhobeak» direla nabarmendu dute, eta menua aurreratu bezain ona izango dela.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Uranga, Uribe eta Zendoia, aurkezpenaren. I. URKIZU



Tolosako kultur etxean egin zuten proposamenaren aurkezpena. IGL

## «Sistema bera dago krisian eta sistema aldatu behar da»

Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna eta ezker abertzalearen proposamen sozio-ekonomikoa, aurkeztuta

**Imanol Garcia Landa**

Alternatibak, Aralarrek, Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak Hego Euskal Herrirako proposamen sozio-ekonomikoa aurkeztu zuten, herenegun arratsaldean, Tolosako kultur etxean egindako hitzaldian. Ainhoa Beola Aralar alderdiko Hegoaldeko zuzendaritzako kidea eta Hasier De los Rios Eusko Alkartasuneko kidea eta Bilduko zinegotzia Tolosako Udalean izan ziren hizlariak. Beolak azaldu zuenez, egungo krisia «anitz» da, eta ez bakarrik ekonomikoa: «Finantza krisi bat bada, baina baita soziala, ekologikoa... eta esparru askotatik egin behar zaio aurre horri». Beolak gaineratu zuen krisia «sistema beraren krisia» dela eta «gainerako eragileak proposatzen ari diren irtenbideak sistema bera mantentzekoak» direla. Lau alderdiek proposatzen dutena garbi utzi zuen: «Sistema bera krisian badago, sistema bera aldatu behar da». Aldaketa horrek «burujabetzaren» aldetik etorri behar duela esan zuen Aralarren kideak. «Burujabetza ez bakarrik identitarioa, baita kulturala, ekonomikoa eta soziala ere».

Krisi sozialari hainbat irtenbide proposatzen dizkiotela esan zuen Beolak, besteren artean, «zerbitzu sozialak publikoak, indartsuak, kalitatezkoak eta unibertsalak izatea». Horiek finantzatzeko krisi ekonomikoari aurre egin behar zaioa gaineratu zuen Beolak, eta horretarako «beste gara-

pen ereduak garatu behar dira, endogenoak, hemen Tolosaldean egiten ari dena, hau da, lurraldean ekoiztu, sortu, kontsumitu eta saldu dadin». Proposamena «irekia» dela esan zuen Beolak: «Jendarteari luzatzen ari gara, hitzaldiak eginez, eta eragileekin ere biltzen ari gara, gero guztien ekarpenak jaso eta dokumentua osatzeko».

Tolosaldean diagnostiko bat egina dagoela esan zuen De los Rios. Papergintzan beherakada izan zenean enpresa asko «noraezkan gelditu ziren», esan zuen. «Zerbitzuek eta industriak indar asko dute eskualdean, nekazaritzak gutxiago, eta proposamen sozio-ekonomikoa azaltzen duenez, eskualdeak oinarri oso indartsuak dira beste era bateko ekonomia suspertzeko». Eusko Alkartasuneko kideak «orain arte ez bezala, alternatiba honek eskualdeak indartzeko bidea hartzen du» esan zuen.

Eskualdeari begira, enpresa askok elkarlana sustatu behar dutela esan zuen De los Rios, «ez bakarrik hemen lana egiteko, baita atzerrira begira bere produktuak saltzeko ere». Enpresa txikiak «espezializatu» egin behar direla gaineratu zuen. Nekazaritza alorrean ikerketa bat egitea ikusten du De los Rios, eta produktu berezituak eskaintzera animatu zituen nekazariak. Merkataritzan berrikuntza bultzatu behar dela esan zuen.

Eskualdean egin beharreko apustuari buruz, Lehiberri aipatu zuen Tolosako zinegotziak. «Lehiberri foroak hainbat eragile uzartzen ditu, hazitegi bat da, eta foro hori erabili beharra dago elkarlan bat egiteko denen artean eta gero denen artean fruitua jasotzeko». Ekonomiararen motorra industria izan behar duela gaineratu zuen.

## Tolosako Tokiko Agenda 21ek zilarrezko Tak21 saria jaso du

Udalsarea 21ek saritu du; «herrian Agenda 21 indartzeko egindako ahalegina erakusten du», esan dute udaletik

**Erredakzioa** Tolosa

Udalsarea 21ek, Jasangarritasunerako Udalerrien Sareak, Tolosako Tokiko Agenda 21 saritu du Zilarrezko Tak21 sariarekin. Aitorpen hori Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate globala neurtzen duen Tak21 prozesuan oinarrituta ematen dute.

Euskadiko Biodibertsitate Zentroan egin zen ekitaldian, EAEko hainbat erakunde eta udalerritako ordezkariak izan ziren, tartean Pilar Unzalu Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde antolakuntza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua. Hain zuzen, Unzaluren eskutik jaso zuen saria Hasier De los Rios Ingurumen zinegotziak.

Legazpiko eta Durangoko udalek jaso zuten 2012ko Urrezko Tak21 Saria; bere aldetik, Tolosaz gain, Amurrioko, Areatzako, Do-



Unzalu sailburuak eman zion saria De los Rios zinegotziari. HITZA

nostiako, Gasteizko eta Zarauzko udalek eskuratu zuten zilarrezkoa. Lehen sariketa horretan 47 udalerrik hartu dute parte, sarearen kide diren %25ek.

Tolosa Udalsarea 21eko kide da 2002 urtetik. Sarearen barruan ingurumena eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko lan egiten du gainontzeko kideekin ezagutza garatuz eta elkarrekin haziz. «Jasotako sariak gure udalean tokiko agenda 21en balioa indartzeko egindako ahalegina erakusten du», azaldu dute Tolosako Udaletik.

Tak21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate globala neurtzen eta aitortzen duen neurketa sistema da, bertako udalerrien errealtaterara egokitua. 40 irizpide eta 100dik gora adierazlerekin Agenda 21en barneko prozesu guztiak neurtzen ditu. Gainera, kalitate hobereana erakusten duten Tokiko Agendak saritzen ditu, beti ere, lortutako emaitzen arabera. Tokiko Agenda 21en prozesu bakoitzaren 5 ezaugarri hauen arabera neurtzen da: estrategikoa, zeharkakoa, parte-hartzailea, operatiboa eta jasangarria.

## Igarondoko alokairu sozialeko 24 etxebizitzak zozketatu dituzte

Guztira 109 eskatzailek parte hartu dute; etxebizitza gehienak 70 urtetik gorakoek zuzendutakoak dira

**I. Garcia Landa** Tolosa

Igarondoko babes ofizialeko 24 etxebizitza alokairuan esleitzeko zozketa egin zuten, atzo, Tolosako udaletxean. Guztira 109 eskatzaile izan ziren, eta lau taldetan banatu zituzten etxebizitzak: mugikortasun urri iraunkorreko pertsonentzat etxebizitza bat zegoen eta bi eskatzaile; 70 urtetik gorakoentzat 20 etxebizitza zeuden eta 31 eskatzaile; gizarte behar bereziki dituztenentzat 2 etxebizitza zeuden eta 16 eskatzaile; eta azkenik, talde orokorarentzako etxebizitza bat zegoen eta 60 eskatzaile. Jende ugari izan zen bilkura aretoan zozketa jarraitzen, eta tarteka txaloak entzun ziren, baita pozik eta triste geratu zen jendea ere, zorte ona ala txarra izan zuenaren seinale. Ibai Iriarte alkateak, zozketa hasi aurretik, udalak alokairu soziala bultzatzen duela nabarmendu zuen.

Zozketaren zerrrendak gaur ar-



Alokairuzko etxebizitzaren zozketaren une bat, atzo, udaletxean. IGL

gitaratuko dira eta ikusgai izango dira bai udalaren webgunean bai udaletxeko iragarki taulan. Bestalde, eskatzaileei euren egoeraren berri emango zaie, hau da, esleipenduna izan den, eta beraz, dagokion etxebizitza zein den, edo itxaron zerrrendako zein postutan geratu den.

**Etxebizitzak salgai**

Tolosako Udalak eta Erretengibel udal sozietateak hiru etxebizitza ditu salgai enkantean. Hirurak

etxebizitza berriak dira. Erretengilek Plaza Berrian du salgai, 174.620 eurorengatik (BEZa aparte). Baldintza pleguak Erretengibelen bulegoan aurkeztu daitezke (Plaza Zaharra, 10-B).

Tolosako Udalak bi etxebizitza ditu salgai. Horietako bat Impernu kalean, 138.900 eurorengatik, eta bestea Rondilla kalean, 116.290 eurorengatik. Udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu behar dira eskariak, hilaren 29a baino lehen.

# Euskal Herriko historia eta kultura uztartuko dituzte Villabonan, hiru egunetan

Bihartik igandera bitarte hitzaldiak, bideo emanaldiak eta kantaldiak antolatatu dituzte Errebotte plazan

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak (Nora Urbizu) eta Aritza Kultur Elkarrekin (Enrike Lahidalga), NabarHerriaren (Iñigo Gallartza-goitia) barruan hiru eguneko egitaraua aurkeztu dute, Euskal Herriko historia eta kultura uztartzeko asmoz. Errebotte plazan hamaika ekitaldi egingo dituzte, musika emanaldietatik hasi eta hitzaldietaraino. Hilaren 8tik 10erako jardunaldi hauei, *Euskal Herriko Kulturgunea* izena jarri diete. Antolakuntza lanetan ibili diren guztiek, eskualdeko herriar guztiak gonbidatu dituzte Villabonako ekitaldietara.

Nafarroaren Konkistaren inguruko aipamenak ez dira albo batera utziko asteburu honetan Villabonan. Udalak, gertaera honekin lotuta, bat egin du Nafarroa Bizirik plataformak hilaren 16an antolatut duen nazio mailako ibilaldiarekin. Asteartean osoko bilkuran onartutako mozioaren harira, herritar guztiak gonbidatu zituen Iruñean egingo den aldarrikapen egunera.



Enrike Lahidalga, Nora Urbizu eta Iñigo Gallartza-goitia. A. IMAZ

## ↓ Egitaraua

### EKAINAK 8, BIHAR

- **17:00etan.** Kulturen arteko azokaren irekiera.
- **17:30ean.** Erakusketa iraunkorra: *Euskal erreferentziak eta konkistak*.
- **18:00etan.** Birtuositate handiko kantaldi umoretsua, Joseba Irazokiren eskutik.
- **19:00etan.** Euskarazko kantagintza berriaren historia, Andoni Tolosa *Morauren* eskutik.

### EKAINAK 9, ETZI

- **11:00etan.** Kulturen arteko azokaren irekiera.

- **12:00etan.** Hitzaldia: *Orreagako batailak*, Nabarraldeko Beñi Agirrerren eskutik.
- **13:00etan.** Xiberoako kantu tradizionalak, Jean Bordaxar, Jean Noel Pinque, Jean Pierre Luro eta Robert Larrandabururen eskutik.
- **17:00etan.** Haur antzerkia: *Arrain herriaren memoria galduta*, Ixabel Agirresarobe eta Hodei Unzueterren eskutik.
- **18:00etan.** Iku entzuznekoak: *Gipuzkoaren jatorria*.
- **19:00etan.** Laur Folk Taldearen musika emanaldia.

### EKAINAK 10, IGANDEA

- **11:00etan.** Kulturen arteko azokaren irekiera.
- **12:00etan.** Hitzaldia: *1512, Nafarroaren konkista*, Nabarraldeko Angel Rekalderen eskutik.
- **13:00etan.** Erramun Martikoren eta JC Irigoienen musika emanaldia: *Galtzetaburu*.
- **17:00etan.** *Bertsolharitza: Elkarrireragiteko haurrentzako kantu bertsoa*, Ibai Esoainen eskutik.
- **19:00etan.** Aintzina Folk Taldearen eskutik musika emanaldia.



Auzoan izandako auto istripuak sortu ditu kexak oraingoan. HITZA

# Adingabeen zentroa berriro ere kezka iturri bilakatu da

80 urteko bizilagun bat ohetik erori zela salatu dute bizilagunek, auto istripu baten zaratak beldurtuta

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo adingabeen zentroaren inguruko bizilagunek, gaiaren inguruan aurrerapausorik ez dela eman salatu dute, «gatazkak edozein momentutan eta edozein modutara suertatzen baitira».

Azken «gatazka», joan den asteazken gauean kokatu dute bizilagunek: «24:30ak aldera, etxe ondoan istripu bat izan genuen. Kofax txuri batek etxegunearen sarrerako kurba gaizki hartu zuen, eta errepidetik ateratu zen. Etxegunearen ondoan dagoen farola jo zuen autoak, eta aurreko alde txiki-txiki eginda geratu zitzaion».

Istripu honen ondorioz, hainbat bizilagunek «sekulako sustoa» hartu zutela diote. Egoera horretan, «ohetik irten eta istripua gertatu zen lekura hurbildu

ziren, laguntza eskaintzera». Bizilagunek 112 zenbakira deitu ostean, Ertzaintza eta anbulantzia bat gerturatu ziren.

Bizilagunen esanetan, «istripu arrunt baten itxura zuen, baina gidariarekin adingabeen etxe hiru nerabe zihoazen. Horietako bat gidariari laguntzen geratu zen eta beste biak Ertzaintza etorri aurretik adingabeen etxera sartu ziren. Gauez horrelako ihesak ohikoak izaten dira, eta egunen batean gertatu behar zuen istripuren batek».

Istripu honen ondorioetako bat ere salatu nahi izan dute bizilagunek, izan ere, «eskerrak farolak kotxea geratu zuen, bestela askak! Farola lorategira erori zitzaion bizilaguna ohetik erori egin zen, beldurtuta, eta ia 80 urte ditu. Ez daukate lotsarik».

Argazkia hurrengo egunean atera zutela aipatu dute bizilagunek, «udal garbitzaileak garbiketa egiten ari zirenean».

### Batzar nagusietan

Zizurkilgo adingabeen zentroaren inguruko bizilagunek Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan zirela aipatu dute, euren ikuspuntua aurkeztzen. «Bertan, etxearren leku aldaketa eskatu genuen, oraingo kokalekua ezegokia dela justifikatuz, eta etorkizunean guk azken bost urteotan jasan ditugun gatazkak errepika ez daitezkeen neurriak hartzeko eskatu genuen», azaldu dute bizilagunek. Baina azken gertaera honekin, euren esanetan, argi geratzen da aurrerapausorik ez dela eman gaiaren inguruan. Horren harira, Zizurkilgo adingabeen zentroaren gaiari irtenbide bat emateko eskatu dute bizilagunek, beste behin ere.

Uda honetan **zatoz HITZA**ren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta laso eguzkitako hau oparil!

Harpidedunen artean *Supersol Surf* (Harpidedunak) surf taula (Harpidedunak) erago!

Harpidedunak: 902-82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza

**Buztina Taberna**

Ondo pasa Anoetako jaiak!

- Eguneko menua kafea barne, 10 €
- Otartekoak
- Plater Konbinatuak

San Juan, 6 • ANOETA • Tel.: 943 65 14 92

**Irudia** ◊ Bidegoian**AZKUE SARIA LARRARTERENTZAT**

Bidegoiangor Txinkorta eskolako ikaste den Maite Larrartek –irudian eskubitik lehenengo– Euskaltzaindiak antolatzen duen Resurreccion Maria Azkue gazte literatur lehiaketan hirugarren saria eskuratu du, olerkien alorrean. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikaslea da, eta maiatzaren 22an Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan jaso zuen saria Larrartek. Euskarako irakaslea den Enara Ortizek ere saria jaso zuen. **HITZA**

**Irudia** ◊ Albiztur / Bidegoian**ZAINTZAREN INGURUAN IKASIZ**

Saiaz Mankomunitatea osatzen duten lau herrietako (Albiztur, Beizama, Bidegoian eta Errezil) 23 emakumek parte hartu dute zaintza ikastaroan. Egunerokotasunean zaintzaren inguruan sortzen diren gaiez gain, emakumearen edo generoaren gaia ere lantzen dute. Guzti hau, herri hauetan egiten ari diren berdintasun planean txertatu dute. Hurrengo astean, hilaren 15ean, bukatuko dute ikastaroa. **HITZA**

**Gazteek uztailean udalekuetara joateko aukera dute**

13 eta 17 urte arteko gazteek Lekeitiora joateko aukera dute; biharkoa da izena emateko azken eguna

**Eneritz Maiz** Amezketak

Amezketako Udalak, 13 eta 17 urte arteko gazteei udalekuetara joateko aukera eskaini die. Izena emateko azken eguna bihar izango da eta udaletxean eman beharko da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Amezketak, beste hemezortzi udalerri bezala, gazteentzako hiralekuak antolatuko ditu. Oraingoan, gazteak Lekeitio kiroldegiarekin elkartuko dira. Hiru egunetan hainbat jarduerekin gozatzeko aukera izango dute: ginkana, gaueko ekimen bereziak, herria ezagutu, hondartzara joan,...

Irteera, uztailearen 12, 13 eta 14ean izango da. Prezioari dago-

Lagun berriak egiteko aukera. **HITZA**

kinez, 30 eta 40 euro bitartekoa izango da, hau izen emate kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko plazak mugatuak dira, eta Amezketako gazteen kasuan zazpi haurrentzako tokia dago. Izena ematen duten haurren kopurua altuagoa izanez gero, zozketa burutuko dute.

Edozein zalantza izanez gero, [samezketa@gmail.com](mailto:samezketa@gmail.com) helbide elektronikora idatzi besterik ez dago.

◊ [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)

→ **Laburrak****Kafe tertulia saioa gaur 15:00etan, udaletxean**

**ALBIZTUR** ◊ Gaur, hilak 7, osteguna, kafe tertulia saioa egingo dute, 15:00etan. Azken hilabeteetan egin duten bezala, ekainean ere kafe tertulia saioa egingo dute, udaletxean. Berdintasunaren inguruko gaiarekin hausnartzen jarraitzeko bideo emanaldia emango dute.

**Gaur helduentzako ipuin kontaketa, Hilario Berrin**

**ALEGIA** ◊ Helduentzako ipuinak kontatuko ditu gaur, Itziar Rekaldek. 20:00etan hasiko du saioa, eta Hilario Berri tabernan izango da. 1997. urteaz geroztik dabil ipuinak kontatzen.

**Sutarri dantza taldearen emanaldia bihar izango da**

**ALEGIA** ◊ Bihar, hilak 8, ostirala, Sutarri dantza taldeak ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du. 22:00etan hasiko da ikuskizuna, eta kultur etxean izango da. Herriar guztiak gonbidatu nahi dituzte emanaldiaz gozatzera joateko. Sarrera doan izango da.

**Jubilatuentzat bidaia Amezketan eta Ikaztegietan**

Amezketarrek Donostia eta Hondarribia, eta ikaztegiarrek Bilbo eta Zarautz, bisitatuko dituzte, hilaren 14an

**E. Maiz**

Amezketako eta Ikaztegiako udalek jubilatuentzat bidaia antolatu dute. Bi herrietan hilaren 14an izango dute irteera, eta izena emateko epeak zabalik daude.

60 urtetik gorako amezketarrentzat, udalak, Donostia eta Hondarribiara antolatu du bidaia. Pertsona bakoitzak 30 euro ordainduko beharko du. Irteera goizeko 09:00etan izango da, eta lehendabizi herriko plazan, gero Ergonen eta beherakoan, Ugarten egingo du geldialdia autobusak. Interesatuak izena emateko aukera gaur eta bihar izango dute, 09:00etatik 14:00etara, udaletxe telefono zenbakira deituz. Goiz partean, Igeldora joango

dira, eta 12:00ak aldera Aquariuma bisitatuko dute. 14:00etan, Hondarribiko Beko-errotak jate-txean egingo dute bazkaria. Arratsaldean, Guadalupera igoko dira, eta ondoren, Hondarribian paseotxo bat emateko aukera izango dute.

**Guggenheim eta Euskalduna**

Ikaztegiako Udalak, berriz, Bilbora antolatu du irteera. 09:00etan zubitik aterako da autobusa, eta hilaren 12a baino lehen eman beharko da izena, udaletxean. Bilboko Euskalduna Jauregia, Guggenheim, Alde Zaharra, Artxanda, Portugalteko zubi eskia... ezagutuko dituzte. 14:30ean bazkaria Erandioko Montenegro jatetxean egingo dute. Arratsaldean, Zarautzera joango dira. Pertsona bakoitzak 20,50 euro ordaindu beharko du bidaira joateko. 60 urtetik gorakoak eta beren bikoteak joan daitezke.

Ezintasunen bat duen pertsonak laguntzaile emateko aukera izango du.

**HONDAKINAK KONPONBIDEA**  
Aurkezpen hitzaldiak**+Ekainak 8**

Arrasateko Kulturate (19:00)  
Juan Karlos Alduntzin,  
Ingurumen diputatua  
Laila Valenzuela, Spora Serveis  
Ambientals-eko zuzendaria

Tolosako kultur etxea (19:00)  
Ainhoa Iraola, Ingurumen eta  
Obra Hidraulikoetako zuzendaria  
Joan Marc Simon, Zero Waste  
Europe-ko zuzendaria

# 320 dantzarik hartuko dute parte Dantzari Txiki eta Alurr Egunean

Goizetik gauera luzatuko den festa etzi izango da; dantzarien arteko harremana sustatzea du helburu

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Dantzarien agertoki bilakatuko da Ibarra, etzi. Izan ere, Alurr dantza taldeak antolatuta, seigarrenez, Dantzari Txiki eta Alurr Eguna egingo dute. Egun osoko festa honetan, 320 dantzarik hartuko dute parte.

Goizean, Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute, eta arratsaldean Alurr Eguna. Alurr dantza eskolen ikasturte amaierako festa izango da larunbatekoa. Bertan, dantza eskoletako ikasleek, haurrek eta gaztetxoek, ikasturte osoan egin duten lana erakutsiko dute.

Goizeko hamarretan ekingo diote egunari. Ordu horretan, Ibarra plaza elkartuko dira talde guztiak: Anoeta, Itsasondo, Zizurkil, Altzo, Berrobi, Berastegi, Bera, Altsasu eta Irurako taldeak, Ipar Euskal Herriko 2 talde, eta Ibarra 8 talde.

Ibarra plaza Agurra dantza eta gero, dantzariak herriko lau txokotan ariko dira, «Ibarra herri guztia dantza betetzeko eta alaitzeko». Hain zuzen ere, Azkue kalean, Txumitxan, Euskal Herria kalean, eta San Inazio auzoan eskainiko dituzte emanaldiak.

## Plazan, guztiak elkarrekin

Taldeek beren saioak Ibarra auzoetan eta kaleetan egin ostean, plaza elkartuko dira. Talde bakoitzak dantza bat eskainiko du bertan, eta gero guztiak batera fandango, arin-arin eta xapeloatz dantzak egingo dituzte, Dantzari Txiki Egunari amaiera emateko.

Ibarrik kanpo etorriko diren



Pasa den urteko Dantzari Txiki eta Alurr Eguneko une bat. R. CALVO

umeek Ibarra bertan bazkalduko dute, eta guztira, 120 ume inguru geratuko direla aurreikusten dute Alurrekoek. Dantza taldeak adierazi dutenez, «gure kulturen bitartez, dantzarien arteko elkar ezagutza sustatzea da egun honen helburuetako bat». Era berean, laguntzeko prest dauden familiei eskerrak eman dizkie.

## Erromeria eta gaueko saioa

Bestalde, bazkal ondoren, «harremanak gehiago sendotzeko eta guztiak ondo pasatzeko», Ipar Euskal Herriko talde batek erromeria egingo du. Haur, gazte eta heldu, herritar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. «Gurasoak beren seme-alabekin dantzatzeko aukera polita izango da, giroa aparta izango baita», azaldu dute Alurretik.

Ekitaldiekin amaitzeko, berriz, 22:00etan, Ibarra plaza emanaldia izango da, Alurr taldeko 135 dantzarik eskainia. Dantza tradizionalak eta koreografiak

egingo dituzte, eta Alurren ikasturte osoko lana ikusi ahal izango da. «Alurr taldearen etorkizuna ziurtatzen duten gazteak oholzaren gainean ikusiko ditugu, saio ederra eta ahaztezinarekin», azaldu dute.

Bestalde, eguraldi txarra eginenez gero, Ibarra kiroldegian izango dira 6. Dantzari Txiki eta Alurr Eguneko ekitaldi guztiak.

## 'Izana dirau, 1512'

6. Dantzari Txiki eta Alurr Eguna antolatzeaz gain, Alurr dantza taldeak bere azken lana aurkeztuz jarraitzen du. Hala, bihar Pasai Donibanen izango da Aiert Beobidek zuzenduriko *Izanan dirau, 1512* ikuskizun berria ikusteko aukera, 22:30etik aurrera.

Dantza eskolako gaztetxoek parte hartzen duten emanaldia apirilaren 14an estreinatu zen Lasarte-Orian. Orduetik, Baigorri (Nafarroa Beherea), Zizurkil eta Tolosan izan dira, eta txalo zaparrada «beroak» jaso dituzte.

## ↓ Egitaraua

### EKAINAK 9, LARUNBATA

■ **10:00.** Dantzari Txiki eta Alurr Egunaren hasiera. Berastegi, Bera, Altzo, Anoeta, Zizurkil, Iruera, Asteasu, Ibarra zortzi talde eta Iparraldeko bi dantza talde San Bartolome plaza elkartuko dira, eta agurra dantzatzeko dute.

■ **Ondoren.** Dantza taldeen emanaldiak izango dira, Azkue, Txumitxan, Argindegin, Emeterio Arresen eta San Bartolome plaza.

■ **13:00.** Talde guztiak elkarrekin fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dute, San Bartolome plaza.

■ **16:00-20:00.** Iparraldeko musika taldearekin erromeria, San Bartolome plaza.

■ **22:00.** Alurr dantza eskolako taldeen emanaldia, San Bartolome plaza.

## → Laburrak

### Langostino txosna muntatzeko laguntza eske

**IBARRA** > Langostino Moto kultur elkarteak kideek laguntza eskatu dute hilaren 12an, 17:00etan, Ibarra plaza txosna muntatzeko. Laguntza duten guztiak Xepla elkarteak afairara gonbidatu dituzte.

### Uzturpeguna antolatzen lagundu zutenei eskertza

**IBARRA** > Uzturpe ikastolako zuzendaritza taldeak Uzturpe ikastolaren jaiak ospatzen parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie, «guraso, langile, irakasle eta ikasleen antolaketa lagundu eta umore ona jarri festa alaitu zutelako». «Laskorain ikastolari eta Usabal sagardotegiari paellarengatik; Sendi Ekintzari sukalde tresnengatik; Orexako udalari mahai eta auklengatik; Zubiaurre tabernari txartelak saltzeagatik eta Ibarra Udalari bere instalazioak eta bitartekoak utzi zizkigulako, eskerrak asko», esan dute. Jaso duten laguntzarik gabe ezin izango luketela «hain egun ona igaro» adierazi dute.

### Mendi irteera eta zikiri jatea, igande honetan

**IBARRA** > Ibarra Haitzetan Raju mendi taldeak mendi irteera antolatu du igande honetarako. Ibarra plazatik 09:00etan irteerako dira, eta Larte eta Uli igo ostean, Gaztelura iritsiko dira. Bertan, Zikiri jatea egingo dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, «haurrentzat eta belarjaleentzat makarroiak egongo dira». Gainera, ibilaldi motzagoa egiteko aukera ere jarri dute. Antolatu direnek Zubiaurren, Atarin, Subegin, edota Facebooken eman ahaliko dute izena.

### Jaietako egitaraua bozeto lehiaketa, abian

**IBARRA** > San Bartolome jaietako egitaraua marrazkiak aukeratzeko helburuz, Bozeto Lehiaketa abian jarri du Ibarra Udaleko kultura sailak. Ekainaren 22ra bitarte, kultur etxean aurkez ditzakete marrazkiak Ibarra bizi edo ikasten duten gaztetxoek. Gaia librea da, baina jaietako zerikusia izan behar dute irudiek. Teknika librez eginak eta folio neurrikoak izango dira. «Sanbartolomeak 2012» adierazpena eta Ibarra armarrak eduki beharko dute marrazkierik. Festa Batzordeak izendaturiko epaimahaiak abuztuaren emango du jakitera irabazleen zerrenda.

# Elkartasunezko pintxo potea, igandean

Ibarrik misio taldeak Indian, Ekuadorren eta Honduraren dituen proiektuak antolatu du ekimena

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrik misio taldea elkartasunezko pintxo potea antolatu du igande honetarako. Ibarra plaza izango da goizean zehar, eta bertan biltzen duten dirua, In-

dian, Ekuadorren eta Honduraren dituen proiektuetara bideratuko dute.

11:00etan zabalduko dute mahaia. Bertan, pintxoak eta edaria hartzeko aukera izango da. Horrez gain, artisautea salmenta ere egongo da, eta elkarrekin dituen proiektuen inguruko informazioa jaso ahaliko da. 12:00etan, Pailazana Clown taldearen emanaldia izango da, haurrentzat. 14:00ak arte egongo da zabalik, eta elkarteak kideek herritar guztiak gonbidatu dituzte.



Azoka berezian egiten duten moduan, mahaia jarriko dute plazan. HITZA

## Euskararen barne erabileraren plana onartu du Ibarako Udalak

Udal langile gehienek beren hizkuntza eskakizunak bete dituzte edo maila bat beheragokoa dute

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarako Udalak euskararen barne erabileraren 2012ko kudeaketa plana onartu du, egin duen azken osoko bilkuran. Lau ildotan oinarritzen da plana, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideetan, trebakuntzetan, langileen baliabide teknikoetan eta kale paisaia euskaratzean.

2008-2012 urteen arteko euskararen erabilera planaren ebaluazioa baikorra egin du udalak,

«udal langile gehienek beren hizkuntza eskakizunak bete dituzte, eta bete ez dutenek dago-kion hizkuntza eskakizuna baino maila bat beheragokoa dute». Beraz, udalaren ustez, «udal langileak euskaraz lan egiteko eta eus-kara beren lan hizkuntza izateko gai dira».

Onartu berri duten kudeaketa planaren ildoetako bat, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideena da. Euskararen ordenantzak bere artikuluan udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatzita egongo direla dio. Bada, planak dioenez, era honetako irizpideak berreskuratuko ditu udalak, eta jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du. Irizpide hori langileen ahozko komu-nikazioan, argitalpenetan, diru

laguntzak esleitzerakoan eta kontratazioan hartuko dute kontuan.

Bestalde, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez duten langileen kasuan, 6 hilabeteko trebakuntza saioak egingo dituzte, euren eus-kara maila lantzeko.

Bestalde, euskararen ordenantzak dioten moduan, langileei baliabide tekniko, terminologiko eta abarretako eskainiko zaizkie euren lana euskaraz egitea errazago suertatu dadin.

Planaren laugarren ildoak kale paisaiari dagokiona da. Udalak dioenaren arabera, «2012. urterako erronketako bat kale paisaia euskaratzea da». Horretarako, jartzen diren kartel, bide-seinale eta abarretan euskararen presen-tzia bermatzea du helburu Ibarra-ko udalak.

## Leitzarrek bihar ikusi ahalko dute txondorra piztuta, Ixkibarren

IV. Sagardo Eguna izango da etzi arratsaldean plazan, sagardoa, pintxoak, musika eta bertsoekin

**I. Terradillos** Leitza

Maiatzaren 18an ekin zion Leitza-ko XXXV. Kultur Aroak, eta etzi iritsiko da amaierara. Bada, aurtengo berezitasunetako bat ikus-teko aukera bada oraindik. Izan ere, aspaldian zuten leitzarrek txondorra pizteko asmoa, eta aurt-en egikarituko da asmo hori. Hasiera batean astelehenerako iragarri bazuten ere, azkenean, bihar piztuko dute txondorra Ix-

kibarren, 18:00etatik aurrera. Be-raz, gerturatzen direnek garai ba-teko ikazkin ofizioa, eta ikatza egiteko prozesua ikusi ahalko dute gertutik.

Bestalde, aurtengo Kultur Aro-ko berrikuntza izan den Mendia, Kirola eta Abenturaren Zinemal-dia gaur amaituko da. Peritzan izango da ikus-entzunezkoa, 20:00etan hasita.

Kultur Aroa bukatzeko, Sagar-do Eguna izango da etzi. Lauga-rreren urtez egingo dute urtetik ur-tera harrera beroagoa izaten duen ekitaldia. Herriko plazan izango da 19:00etatik aurrera, eta bertan 20 sagardo dastatzeko au-keria izango da, pintxoak janez, musika entzunez eta bertsoak adituz...

## UEMA egunera joateko deialdia egin dute eskualdeko herriek

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak urtero antolatzen duen jaia, etzi izango da Goizuetan

**I. Terradillos**

Aurtengo UEMA eguna etzi, larunbatean izango da, Goizuetan. Udalerrri Euskaldunen Manko-munitateak antolatzen duen egu-naren leloa *Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari* izango da. Tolosaldeari dagokio-nez, ia herri gehienak daude UEMAren barruan, eta herritar-rei Goizuetan izango den jaira jo-ateko deia egin diete.

UEMA eguna aurkezteko atzo eginiko agerraldian «UEMAk euskararen normalizazioan egi-



UEMA egunaren aurkezpena egin zuten atzo. HITZA

niko aitzindari lana» nabarmen-du zuten, Nafarroako Gobernu-a kritikatzearekin batera, «ez baitu-tuzte hizkuntza eskubide berbe-rak nafar guztiek, zonaldekako banaketaren ondorioz».

Etzi Goizuetan izango denari dagokionez, goizean, haurrentza-ko puzgarriak, jokoak eta taile-

rrak izango dira, herriko etxeak ezagutzeko bisita gidatuak, eta artisauak, dantzariak eta musi-kariak izango dira. Eguerdian ekitaldi nagusia egingo dute, eta bazkariaren ostean, puzgarriak eta dantzaldia izango da, Gabezin taldearekin. Gauean, bestalde, kontzertua izango da gaztetxean.

## Leitzak Euskal Herriko historialarien biltzarra hartuko du irailean

Irailearen 8an izango da, eta bertan parte hartzeko izen emate epea zabaldu du Nabarralde

**I. Terradillos** Leitza

Nabarraldeko irailearen 7tik 16ra Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra egingo du Arrasaten, Leitza, Agoitzen eta Iruñe-an, 1512ko konkistaren ondorioak aztertzeko. Izan ere, azaldu dute-nez, «Albako dukearen inbasioa, Nafarroaren gerrari hasiera eman ziona, ez zen pasarte hare-kin amaitu. Ondorioak urtetan luzatu ziren, eta hauetako batzuk gaur egunera arte irauin dute».

Irailearen 8an Leitza izango den saioan Luis M. Martinez Ga-rate, Floren Aoiz eta Befi Agirrek Gaizkileen Mugari buruzko haus-narketa egingo dute, mendeetan zehar luzatu ziren Gaztelaren konkistek nafar erresuman era-gin zuten lurralde zatiketaren testuinguruaren barne.

Biltzarraren egitura dela eta, parte hartzaileak Leitzako saioan matrikula daitezke (20 euro) edo biltzar osoan (60 euro). Izen em-ateko epea irailearen 3ra arte egon-go da zabalik. Horretarako Lei-tzan bertan egin daiteke, Alke kultur taldearekin ([alke@leitza-kultura.net](mailto:alke@leitza-kultura.net)) / Juan Mari Barriola: 686906144 edo Nabarralde-ekin (948 21 10 57 / [www.nafarroa.biz/kongresua](http://www.nafarroa.biz/kongresua)) harreman-tan jarrita.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	18°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leizalzeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Villabona.** Billabona FKE futbol taldeak bere eguna ospatuko du ekainaren 16an, eta bazkaria Tolosako Usabal sagardotegian egingo dute. Hielduen txartelak 25 euro balio du, eta haurrenak 15 euro. Txartelak ekainak 9 bitarte erosi daitezke Villabonako Kazetari dendan.
- **Villabona.** Tolosaldeko Aste Berdearen barruan, gaur, 19:30ean, *Zero Zabor estrategia udalaren ikuspegitik* hitzaldia, udaletxean, Elizatik Txermi-nera bitarteko bizilagunentzat.
- **Zizurkil.** Tolosaldeko Aste Berdearen barruan, gaur, *Errausketari atea ixten* dokumentala, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.
- **Anoeta.** Korputs, umeen eta moztaroen eguna, gaur, jaiaren barruan: 10:30etik 13:30era, ume eta gaztetxoentzatko parkea, plazan (barraren prezioa merkeagoa izango da); 16:00etan, birziklatze tailerrak, plazan; 18:00etan txokolate jatea, plazan; 18:30ean Poxpolo ta Konpainia, plazan; 19:30ean, buruhandi eta erraldien kalejira; 21:00etan, saiheski jatea, plazan; eta 23:00etan, DJ Bull-en emanaldia.

# Babarrunaren prozesu guztia bertatik bertara ezagutzeko aukera

Turismo eskaintza berria abiarazi dute, Tolosan; bisitariak babarrunak eriteko aukera izango dute



Ereiteko aukera emango dute. A.I.

**Rebeka Calvo** Tolosa

Tolosaldeko turismo eskaintza berri bat izango du igandetik, hilaren 10etik, aurrera, eta esperientzia berri hori eskualdeko produktuz izarra izango du protagonistatza: babarruna.

Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailak azaldu duenez, *Tolosako babarrunaren bidaiak: erietetik platerera* izena du ekimenak, eta funtsean, helburua babarrunaren bueltan turisten «inplikazio pertsonala» biltzea da. Horiek horrela, eta «euskaldunok produktuei eta gastronomiari ematen diogun garrantzia kulturala ezagutarazi eta partekatze», bisitariak lau jarduerara zehatzetan parte hartzeko aukera emango zaie. Batetik, igandean bertan, Urkizuko Olateaga Goikoa base-rrian babarrunaren landaketan

karka ere hartu daiteke parte. Ekitaldi bakarrean parte hartu nahi duenak 20 euro ordaindu beharko ditu (haurrek 10 euro), eta ekimen guztian parte hartzeko 100 euro ordaindu beharko ditu, eta etxera 3 kilo babarrun eramango ditu. Tolomendi, Tolosako Babarrun Elkarte eta Saskika-Lurlan ere ekimenean parte hartuko dute, eta azken hauen bezeroek prezio berezia izango dute.

**Diru laguntza**

Bestalde, Tolosako Udalak eta Babarrunaren Kofradiak hitzarmena sinatu berri dute. Lankidetzak hitzarmena urtero berrikusiko dute eta 2015. urtera arte luzatu ahal da. Honen haritik, kofradiak 2.140 euro jasoko ditu, eta hurrengo urteetako kopurua aurrekontuetan aurreikusiko dute. Akordioaren arabera, kofradiak herriko turismo materiala ezagutzera emateko konpromisoa hartu du «Euskal Herrian zein nazioarteko ekitaldietan burutzen dituen ospakizunetan», eta informazioa elebitan jarri beharko dute euskarari lehentasuna emanda, besteak beste.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

**Birziklatze tasak**

Anoeta

33%

atez ate  
83%

Oiartzun, Antzuola  
Usurbil, Hernani

**Zaborte-gira doana**

Usurbil

10%

67%  
errefusa

Anoeta



Osanunagatik  
Ingurugiroak  
kezkatzen gaituelako  
Ongizate arrazoiengatik  
Seme-alabengatik  
Arrazoi ekonomikoengatik



**Anoetako Jaiak**

**Anoetako Udala**

**EUSKAL PRESO  
ETA IHESLARIAK  
ETXERA!**

**ondo pasa karpuzsetan!!**